

Gorka Landaburu

Lehenengo Eusko
Jaurlaritzako
lehendakariordearen
semea. Pariseko
erbestean sortua.
1977tik hona *Cambio*
16 aldizkariaren ibiliari
loturik ageri da haren
izena. 2001ean, ETaren
atentatua jaso eta nahi
ez zuen protagonismoa
beregianatu zuen
kazetariak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco



«Inork ez dit abertzaletasun ikasgairik eman behar»

Hauteskundeak irabazi gabe ere Gobernuazuzenduko du PSOEk.

Nik uste demokrazian aldaketak onuragarri direla. Ez dakit zer etorriko den, baina beti izan naiz oso zeharkakoa, guztiekin hitz egitearen aldekoa, denekin lan egitekoa, ez batzuk besteen kontra. Aldaketa, nire ustez, positiboa da: leihoak ireki, gela eguratu... ona da. Ona, baita EAJrentzat ere, doala oposizioa, ikusi dezala zer den. EAJ ez da horregatik desagertuko. Beste batzuk, bai, baina EAJ ez. Egoera konplikatu egin da, zeharkakotasuna behar da, eta ez nazionalisten eta ez-nazionalisten artean bakarrik. Are gehiago, nik, aurrerakoien eta atzerakoien artean egiten dut banaketa: askatasun handiagoa, aurre-rapena, egoerak aldatzea nahi dutenak, bate-tik, eta gauzak bere horretan nahi dituztenak, berriz, bestetik. Bada, herri honetan ez, hemen nazionalistak ez-nazionalisten kontra!

Zuen aita, Frantzisko Xabier Landaburu, EAJko diputatu izana Madrilen, Eusko Jaurlaritzaren lehendakariordea...

Hamaika urte nituen hil zenean. Tira, gizon berritsua, irekia eta diziplinatua zen gure aita. Autoritate handikoa ere bazen, heziketa estu eta zorrotza jaso zuena, oso katolikoa... Aldi berean, alaia eta umore handikoa. Baina estua izan behar gurekin, zazpi ume ginen 60 metro koadroko apartamentu txiki batean! Arabarra zen, errioxar ukitua ere bazuen, jatun ona... Oporretan, Donibane Lohizunen, ama hondartzan –zarauztarra izan–, aita ez, aita pasieran, sonbreirua jantzita, aperitif hartzen... Belaunaldia, alegia.

Balio jakinak transmititu zizkizueten.

Halakoxe jendea genuen inguruan! Denbora igaro eta konturatzen zara ez zirela edonor: Jose Antonio Agirre, Jesus Maria Leizaola –“triste” esaten genion–, Manuel Irujo –hura zen, hura, gizon trumoi!–, askotan etortzen zen gurera, aitarekin eztabaidan; Agustin Alberro, Setien gotzainaren osaba, Jaurlaritzaren ordezkari izakoa diruzaina... Pertsonaia historiko horiek, batetik, eta fran-

Errua

“Ez du balio errua Madrili edota Parisi egotea. Errudunak izango dira, bai, baina horrek geure errua ezkutatzeko baino ez du balio. Errua geurea da, euskaldunona, ez garelako adostasunera iristeko gauza. Problema latza dugu, konpondu behar duguna. Hemen, Ajuria Eneko paktua berri behar da, paktu zabalagoa, denon artekoa, nora goazen eta zer egin nahi dugun erabakitzeko. Funtsezkoa da. Eta biolentzia eta terrorismoaren arazoa ere konpondu”.

tses kulturaren osagaiak, bestetik, dena nahasian. Izan ere, Parisen joan ginen eskolara, Frantzian egin genituen lagunak, eta horrek markatu egiten zaitu, are gehiago 50eko hamarkadan, Frantzian gorabehera handiak izan ziren eta. Etxean asko hitz egiten zen demokraziaz, eta Euskal Herriaz. Horregatik esan izan dut inork ez didala abertzaletasun ikasgairik eman behar, nik –bistan denez– ikurrina biberioan nuelako. Gaztetatik izan genuen Euskal Herriaren kezka. Hamar-hamaika urte genituela, hona etortzen hasi ginen. Aitak ez ezik, amak ere herri honentzako maitasuna sartu zigun. Aitaren historia ezaguna da, amarena ez: amak hemezortzi urte zituela alde egin zuen Zarauztik, gerrara!

Laikotasuna.

Frantzian laiko zen eskola. Hemezortzi bat urte arte parrokiara joan ginen, elizara, katiximara... Oraindik ere uste horretakoa naiz ni: erlijioa, sakristian; eskola beste ezertarako da.

68ko maiatza.

Batxilergoa bukatzen ari nintzen. Hamazazpi urte nituen. 16. auzoan bizi ginen, Trocadero, Jaurlaritzaren egoitza zegoen lekuan. 68ko maiatza, berriz, Latindar auzoan zen. Gu ez ginen hara joaten, ez genuen barrikadarik egin, ez adreilurik inori bota. Behar-bada urte batzuk gehiago izan bagenu. Manifestazioetan parte hartu genuen. 1968ko maiatzaren 13an bizian ezagutu dudan manifestaziorik handienez hartu nuen parte. Pariseko mendebaldetik iparralderantz joan ginen, milioi bat lagun inguru, oinez. Eguerdiko ordu batean irten eta arratsaldeko seietan heldu ginen. Jendearen emana! Horixe gure ekarpentxo maiatzari. Ordurako, politikaz arduratuta, Parisen gertatzen ari zenaz arduratuta, eta libre, eskolak itxi zituztelako, unibertsitateak ere itxi... Ondoren, etsia, maiatz haren ondoko hauteskundeak eskuiak irabazi zituelako, De Gaullek. Besterik ez bada ere, haize freskoa sartu zen, behintzat, maiatz hartan.

Euskal Herrian zinen 1972an.

Etortzeko garaian, zalantza: Parisen geratu, edo Euskadira etorri. Hemen ere garai gogorrak ziren. Pasatua zen Burgoseko epaiketa. Parisen, esaterako, mintzaldiak egin nituen zenbait lizeotan Burgosekoa azaltzen, hemezortzi bat urte nituela. Ez nintzen ETakoa, baina ingurukoa. Zarautzen bertan kontaktuak nituen VI. Asanblada izenekoarekin. Etortzeko beste arrazoi bat, handia, andre-gaia nuen: zarautzarra. Garai hartako, gainera, ama ere hemen genuen, Zarautzen, 69an etorria.

...

Ama etorri zenean ere! Arreba eta biok etorri ginen amarekin, Paris utzita. Heldu gara Iruñera eta Gobernu Zibilera eraman gintuen poliziak. Hiru ordu eduki gintuzten han –agiriak zuzen genituen, ez zen okerrik–, baina

komisarioak etorri behar hala ere, amari esanez: “Libre zara herrialde honetara etortzeko. Herrialde libre da hau, Frantzia bezain libre. Ez dizugu txarrik egingo, ez dakit zertan izan zaren hainbeste denbora kanpoan”. Aditu egin behar! Umilazio txiki bat.

Frantsesa erakusten hasi zinen baina laster zinen hedabideetan lanean.

1975ean hasi nintzen horretan. LKIn militatu nuen, halako bat arte. “Iraultza etengabea” gora eta “iraultza etengabea” behera... Gogoratzen naiz, artean Franco bizi zelarik, nahiz eta haren bukaera sumatzen genuen, esan nuela: “Hemen hauteskundeak egiten diren egunean ez dugu guk irabaziko, langile iraultzaileok, PNVk baizik”. Logikoa zen. Tira, bitartean, bizirauteko, frantses eskolak eman nituen Algortan, 73-74 inguruan. Garai beroa zen hemen, eta Luxenburgo Irratiaren-

Nortasun agiria

Gorka Landaburu Illarramendi (Paris, 1951). Gurasoen erbestealdia tarteko jaio zen Parisen, zortzi senideko familian. Hantxe egin zituen kazetaritza ikasketak. 1972an itzuli zen Euskal Herrira. *Cambio 16* aldizkarian jardun du joan deneko hogeita hamar urtean. Egun, haren euskarazko edizioa ere zuzentzen du: *Aldaketa 16*. EE eta PSE ingurukoa da, militante izan gabe ere. *Gesto por la Paz* taldeko bultzatzaileetakoa. ETaren atentatua jaso zuen 2001ean, baina guraso abertzaleek transmititu zizkieten balioetan sinesten du oraindik. Guztien artean, askatasuna da lehenen. Ibilbide handiko kazetaria da, oroz gain.



tzako kronikak egiten hasi nintzen; baita *Le Matin Paris* egunkariarentzat ere. Gogoan hartu oso garai zalapartatsua izan zela hemen, Franco hil, amnistia... Oso garai interesgarria eta, kazetaritzaren ikuspegitik, ahaztezi-na.

Zuk lehenengo lerrotik bizi izan zenuen garaia, *Cambio 16* aldizkariaren erredakzio eta zuzendari-tzatik.

Trantsizio garaiko erreferente izan zen hura. Lehenengo, ekonomi aldizkaria zen, frankismo garaian, 1971n. Debekatu zuten. *Cambio 16* izena jarri, eta onartu. Inork zergatik ez dakiela. 1977tik hona ari naiz bertan. Gipuzkoako berriemaile izan nintzen, kolaboratzaile gero, zuzendari gaur egun. Kazetaritza militantea egin genuen, diktaduratik gentozen, demokraziara bidean. *Cambio* erreferentea izan zen, dudarik gabe, ezkerretik zentro-eskuine-ra arteko jendearentzat. Denak aldizkariaren zain izaten ziren. Denborarekin, aldizkari gehiago sortu ziren eta aldatu egin zen gure pisua.

Kazetaritza militantea esan duzu. Alderdi bateko militantea zinen?

Ez. Hori saihesten saiatu nintzen beti. LKiko militante izan nintzen 1975 arte. Harrezkero ez nintzen inongo militante izan. Kazetaritza-ri ekin nion eta kito.

Uste nuen Euskadiko Ezkerrakoa izan zinela, eta PSEkoa.

Ez. Beti izan naiz ingurukoa, batarena eta bestearena. Hauteskunde zerrendetan ere agertu izan da nire izena, baina hala eskatu izan didatelako. Militantzia *light* xamarra, nahi baduzu.

Jomugan

"Inor jomugan jartzen dutenean, erne! Hau herri txikia da! 1983an, adibidez, Baionan, ia-ia larrutu gintuzten *Cambioko* argazkilaria eta biok. Zein zen argazkilaria? Josu Bilbao, 1968an Basauriko kartzelatik ihes egin zuenetako bat. Hortik atera kontuak! Bada, joan gara Baionara 83an, GAlen atentatu baten ondoren manifestazioaren berri ematera, eta gu akabatzero etorri ziren manifestari batzuk. Frantses poliziak atera gintuen handik".



AZKEN HITZA

Gurasoen belaunaldia

"Pena da gure gurasoen belaunaldia hain gazte hil izana. Galera handia izan zen PNVrentzat, eta gure herriarentzat. Haien liberalismo eta demokrazia zaletasunak onura handikoak izango genituen guk".

Gesto por la Paz elkartearekin konpromiso estuagoa duzu.

Bai. Hogei urte neraman esanez zer edo zer egin behar zela. Urte ilunak igaro genituen. Nik esan ohi dudanez, Francoren diktadura bizi izan genuen lehenengo, eta biolentzia eta terrorismoare-na, gero. Geston bai, militantzia aktiboa izan dut, Zarautzen bertan batik bat, baina eskatu izan didaten lekuetan ere bai, mintzaldiak eginez eta abar. Baina badiotsut, batez ere Zarautzen, kontzentrazio isiletan. Gogoratzen naiz, Ortega Lara bahitu zutenean, astelehenero-astelehe-nero, Zarautzen, kale Nagusian. Gure aurrean, Batasunakoak. Gure aurrean, tartean bizpahiru metro besterik ez zeudela, pankarta pankartaren kontra.

"Pankarta pankartaren kontra".

Latza. Are latzagoa aurrean lehengusuak eta koinatuak dituzenean, Zarautzen. Eramangarriagoa litzateke Donostian, edo Bilbon. Baina herri txiki batean... Astelehenero, kontra-manifestazioa genuen guk. Oso desatsegina zen, baina egin beharra geneukan.

AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteko euskal adarra zuzentzen duzu.

Ez dago euskal adarririk. Kontua da elkarteko presidenteak zenbait ahoberokeria esan zituela bake prozesuaren kontra eta guk, Euskal Herriko zenbait biktima, adierazi genuen prozesuaren alde ginela.

Kritikak jaso zenituen horregatik.

Bai, AVT elkartetik batik bat. Baina guk, gu ere biktima garen aldetik, soluzioa nahi dugu. Nik Aljerreko elkarriketen alde egin nuen, Zurichekoaren alde... politikariek egoerari irtenbidea aurkitzeko obligazioa dutelako. Prozesuek porrot egin zutela –ETAk nahi ez zuelako–, bada, bai, porrot egin zuten, baina saiatu beharra dago. Hori dela eta ez dela esan zidaten Stockholmeko sindromeak jota nagoela. Madrigo tertulia askotan, Interneten... ageri da sindrome kontu hori. Baina ez diot kasurik egiten.

Biktima zara zu zeu. Atentatua jaso zenuen.

2000 urtean, han non hots egiten didan Barne sailburuak esanez nire izena ETAREN zerrendetan ageri dela. Baina, azken finean, nor ez da ageri ETAREN zerrendetan. "Ez, ez, Gorka,

eremua zabaltzen ari dira, kontuz ibili”. Ordurako, Jose Luis Lopez de La Calle hila zuten, mehatxuak jasoak nituen... Bizkartzaina jarri zidaten. Bizimodua aldatu zitzaidan. Pintadak ere eginak zizkidaten Zarautzen, Batasunako zarauztarrek. Azkenean, gutun-azala, 2001ean, maiatzaren 13ko hauteskundeen ondotik jaso eta zorionez eta zorigaitzez ireki nuena. Zorigaitzez, ireki nuelako. Zorionez, 150 gramo dinamitako gutun-azalak ez ninduelako betean harrapatu. Zorionez, era berean, ez nuelako maiatzaren hamalauko gauean ireki —alaba nire ondoan zegoenean—, hamabostekoan baizik. Hauteskundeen ondoren nekatuta eta ohi baino beranduago ireki nuen ditxosozko gutun-azala. Eskuak txikitu zizkidaten,itsu begi batetik, berrosatze luzea —sei hilabetekoa, hamabost egun ospitalean—... “Harrapatu egin naitek!”, pentsatu nuen, “Herri honetako historiaren atal egin hautel”. Ospitalera, zuzenean. Han, “ezin da!”, horixe esaten nion neure buruari. Mundua etorri zitzaidan bisitan eta berdin esan nien denei, izan gotzain, lehendakari edo alkate: “Hau konpondu egin behar da. Hau ezin da izan”. Familia ere, hunkituta. Azkenean, bizkartzain batekin sartu eta birekin irten erietxetik. Eta berriz idazten ikasi behar, errehabilitazioa eta gainerakoak.

Zer zioen zure barruak?

Barruan, pentsamendu bakarra: “Hau konpondu egin behar da. Bertan geratuko naiz. Ez Parisera, anaiarenera, ez Madrilera, *Cambio* aldizkariarekin. Hau nire herria da, ez dut arazoa konponduko baina bertan geratuko naiz”. Horrelako eraso batek berretsi egin zuen ordu arte egin nuen lana, berretsi gure gurasoen belaunaldiak egindakoa, haiek erakutsitakoa: demokraziaren alde borroka egin beharra dagoela; borroka, prentsa askatasunaren alde; borroka, askatasuna lortzeko. Gure gurasoak bezala, askatasuna lortzeko borrokan ari gara gu. Herri honetan askatasun gabezia dago. Onartezina da hemen gertatzen ari dena.

Hiltzeko arriskua

“Onartezina da zinegotzi, magistratu, enpresaburu, unibertsitateko irakasle, ikasle, kazetari, politikariak bizkartzainak izatea alboan, egun osoz. Hori ez da normala. Mendebaldeko Europan ez dago horrelako kasurik. Egoera honek ezin du iraun. Gutxi hitz egiten da gai horretaz. Goizero, ehunka lagun zain daude, hiltzeko arriskuan daudelako, hiltzeko arriskuan! Froga da, bat baino gehiago hil dituztela. Hori da hemen normaltasuna. Eta ezin da. Konpon dezagun hori, eta konponduko dugu gainerakoa. Ezin dugu aurrera egin”.

...

Esan dizut, atentatua eta gero hemendik alde egin izan banu, irabazi dutela pentsatuko nuen. Francok gure gurasoak bentzutu zituen bezala —eta erbestera behartu—, nik alde egin izan banu galdu egingo nuen borroka. Atentatuak ez nau aldatu, gurasoen belaunaldiaren balioek irauten dute nire barruan, eta frantses hezkuntzarenak, ez alferrik igaro nituen hogei urte Frantziako ikastetxeetan. Eta besterik ez.

“Besterik ez”?

Ez gara gogoratzen, baina Herri honetan jende askok Francoren alde borroka egin zuen. Herri hau abertzale eta ez-abertzaleen artean egin behar da. Nola esango duzu Basagoiti ez dela euskalduna? Ez da abertzalea izango, baina euskalduna? Ibarretxe eta Patxi Lopez bezain euskalduna. Gogoeta egin beharra daukagu denok, eta klase politikoak bereziki. Oraintxe, PNV oso minduta dago boterea kendu diotelako. Boterea ez da PNVrena! Baina, orain arte, bere gotorlekutzat hartu du Herri hau, bere batzokitzat. Hogeita hamar urte igaro ondoren boterea kendu diotenean, min. Baina ikasiko du, oposizioan egon ez den alderdi bakarra da. Oposizioan asko ikasten da. Hauek ere, daudela oposizioan, aurreko belaunaldi hark berrogei urte egin zituen oposizioan etal! Batzuk erbestean izan ziren, beste batzuk hemen bertan. Egoera horretan umil izaten ikasten duzu, denekin hitz egiten, zeure ekarpena egiten. Horra, adibidez, PNVk Europako sozialdemokraziari egindako ekarpena. Horrela egin behar dugu gaur ere, Euskal Herriak Europara jo, gure seme-alaben eta iloben alde. Hizkuntza defendatu, kultura, baina hori ez da identitate auzia, sentimendu kontua baizik: denok Herri berekoak garela sentimendua izatea, eta ados jarri behar dugula sineste. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.

URRUTI Sport

Parapente Ikastaroak eta bi lagunentzako hegaldiak

- Parapentea
- Alpinismoa
- Elurra
- Piraguismoa
- Paintball
- Txirrindularitza
- Kayak...

Jose Maria Soroa 20 • 20013 Donostia • Tel/Faxa: 943 27 81 96 • urruti@urruti.com • www.urruti.com